Intsektuen eskolako tximeleta gela



Gipuzkoa barrenean dagoen herri txiki bateko eskolan Tximeleta gela daukate.
Jakin nahi duzue zergatik den berezia eskola hori?

Ba hementxe erantzuna: gure herrialdeko intsektu eskoletan, intsektu gehienak doaz eskolara: labezomorroak, marigorringoak, inurriak, kakalardoak, tximeletak, sorgin-orratzak eta abar luze bat.

Insects

Herrialdeko intsektu eskoletan bezala, intsektu guztiak ezberdinak dira: handiak, txikiak, koloretsuak, ilunak, argiak, alaiak, goibelak, eskolara kantuan doazenak eta eskolara bere lau, sei edo zortzi hankak tarraz daramatzatenak.

Eskola guztietan daude intsektuak, baina Tximeleta gela, ez dago edonon. Tximeleta gelara doazen tximeletak berezitasun bat daukate, ezin dutela beste tximeleten moduan hegan egin. Hori dela eta, tximeleta hauek *Hegan egin ezin duten tximeleten eskola*-ra joan ohi dira. Denak elkarrekin, baina beste intsektuekin elkartu gabe.

Orain dela lau urte hegan egin ezin duten tximeletak beste intsektuekin egon nahi zutela ohartuta, haientzako gela bat egokitzea erabaki zuten Luis Ezeiza eskolan, eta ordutik hona…

Zenbat momentu bizi izan dituzten hegan egin ezin duten pinpilinpauxak eta beste intsektu guztiek, batera, ikasten, elkarrekin jolasean, lanean, korrika, kantuan, bazkaltzen, lotan, dantzan. Azken finean….hegan egiten!



Bide osoan hainbat lore izan dituzte bidelagun, bide-egile, bide-erakusle eta laguntzaile.

Mila esker guztioi, hegan egiten ikasten ari diren tximeleten partez. Lau urte zoragarri igaro ditugu zuekin batera.

Mundialak zarete!!!